

# “Apolitikoak eskuindarrak diren bezala, talderik ez dutela diotenak Real Madrilekoak dira”

Patxi Alonso | Benetako konkistatzailea

Kamera aurre zein atzean, “makina” bat.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Judit Fernandez

## Mundua futbola, futbola eta futbola omen da.

Bedeinkatzen dutenerako urak zerbait izango du, ezta? Gol bakoitza orgasmo bat da eta zenbat egongo diren ez dakizunez...

## Sexua baino ziurragoa dela futbola, alegia.

San Mamesetik erromesaldian irteten den jendetzari Athletic kenduz gero zer gertatuko litzateke? Eta urtebetean futbolik ez balego?

## Zuek Cristiano Ronaldoren azazkalei buruz hizketan jarraitzeko gai izango zinatekete!

Lehen telebistak formatu, informatu, eta entretenitu behar zuela esaten zen. Gaur entretenimenduak irabazten du, baita albistegietan ere. Baina nork egin du negozioa norekin? Telebistak futbolarekin ala futbolak telebistarekin?

## Auskalo, baina aditu orojakile ahoberoentzat ez dago krisirik.

Telebistan egin dezakezun okerrera ez da telezaborra, gaizki egindako telezaborra baizik. Ez pentsa jendeak eztabaida gaiztotu eta zaratatsuak nahi dituenik, baina futbolari bokadiloa, katxondeoa, eta *Marcaren* txorakeriak kentzen badizkiozu zer geratzen da?

## Athleticzalea izateagatik Interneten larrutzen duten aurkezle bilbotar bat!

Bilbon sortu izana barkatzen ez didatenak pozik uzteko zer egin behar dut? Suizidatu? Apolitiko guztiak eskuindarrak diren bezala, talderik ez dutela diotenak Real Madrilekoak dira.

## Kontuz, zurea Real Madrilen katea da eta...

Auskalo zergatik daukan La Sextak aurkezle zuri-gorri bat haren burua mozteko prest dauden beste mila ilaran edukita. Haientzat Athletic, liga ona egiten duenean, beti bederatzigarren geratzen den Asterix eta Obelixen taldea da.

## Es da izango reality-en maixutzat zauzkatelako?

Generoak etiketak dira eta egon daitezke oso reality onak eta oso txarrak, albistegi on eta txarrak egon daitezkeen bezala.

## Aizu, ez gaitu inork irakurtzen, eta ez hasi reality-ak defendatzen, e.

Zergatik ez? Beti egin didate grazia ekonomia aldizkari bat irakurri eta gorbata bat janzteagatik xanpaina txiz egiten dutela uste dutenek.

## Baina jendea nahierara erabiltzen duenari manipulatzailea esaten zaio.

Akzio-erreakzio sekuentzia batzuk nahiko matematikoak dira, baina pertsonekin ari zaren momentutik beti dago ezusterako tartea. Kokotxak pil-pilean prestatzea bezalakoa da, puntu egokia bilatu behar duzu.

## Hori baldin bada telebistaren etorkizuna...

Telebista orainaldian bizi da eta ez naiz ni azti eta profeta izango. Hori bai, lehengo programa handi baten aurrekontuarekin kate oso bat egin beharko da laster! ■